

Urtarrilaren 4ko 1/1978 Errege Lege-dekretuaren bitartez Euskadiko erakundeak egituratzeko hasitako bideak paradoxa bitxia ekarri digu: ia denok esango dugu, eta arrazoizkoa irudituko zaigu gainera, gure herriko antolakuntza politikoan, berez, udalerriak berebiziko garrantzia izan duela, baina antolatuta den erakunde-ereduak, historiarekin bat egitea nahi izan den arren, ez dio garrantzi handiegirik ematen udalari. Ez dut uste ezer berririk esango dudarik, Euskal Autonomi Elkartean azken hamar urteetan garatutako erakunde-ereduak betetzeko duen hutsune nagusia horixe dela baldin badiot, hau da, udalak bete behar duen lekua zehaztea, bai aginte publikoen lanak banatzeko orduan, eta baita ekintza-publikorako diru-iturriei dagokienean ere.

Arazoa, hala ere, ez dugu berria. Duela zazpi hamarkada baino gehiago, Eusko Ikaskuntzak ere argi esan zuen gure herriko erakundeen historian euskal udalak izan duen garrantzia ez zetorrela bat garai hartan betetzen zuen egitekoarekin. Eta hori horrela, Euskal Udal-administrazioaren Topagunea antolatzea erabaki zuen helburu jakin batekin: “.gure herriko udalen arazoak aztertze bultzada eta laguntza ematea; konponbiderik premiazkoena zein arazok duen zehaztea eta konponbide egokia aurkitzea.”.

Ez dakit nik topagune hura zehaztu eta antolatu zuen Batzorde Eragileak duela hirurogeita hamasei urte esana “...euskal udal-giroa sortu behar dugu” oraindik ere betetzekoa den. Baina nabarmendu dudanez —ordutik honako urte-en joanak ekarri dituen aldaketak ahaztu gabe— gertakari hartan euskal udalgintzari antzeman zizkieten arazorik premiazkoenetako batzuk eta Autonomi Elkarteko udalek gaur dituztenak oso antzekoak dira.

Euskal administrazioaren Topagune aipagarri haren urteurrena aukera polita izan daiteke —behar besteko zuhurtziaz baina nahitaezko ausardiaz— udalak gaur egun dituen arazoei aurre egiteko.

*Josu Iñaki Erkoreka Gervasio*  
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Zuzendaria

El proceso de articulación institucional iniciado en el País Vasco con la aprobación del Real Decreto-Ley 1/1.978, de 4 de enero, ha dado lugar a una curiosa paradoja: Mientras que se afirma y comparte, de modo prácticamente unánime, que en la organización política tradicional del País el municipio ha ocupado un lugar preeminente, se diseña un modelo institucional que busca enraizarse en la historia pero que, contra lo que de ésta resulta, brinda muy escasa atención al escalón municipal. No creo, en este sentido, que aporte novedad alguna, si afirmo que la gran asignatura pendiente del modelo institucional desarrollado durante los últimos años en el seno de la Comunidad Autónoma de Euskadi, radica en la definición del lugar que ha de ocupar el municipio, tanto en el reparto de las tareas a desarrollar por lo poderes públicos como en el contexto de flujos económicos que han de financiar la acción pública.

El problema, sin embargo, dista mucho de ser nuevo. Hace ya más de siete décadas, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos constató, también, la existencia de una fuerte disociación entre la importancia que el municipio vasco había revestido en la historia institucional del País y el limitado papel que a la sazón desempeñaba, y persuadida de la necesidad de salvar esa distancia, dispuso la celebración de una Asamblea de Administración Municipal Vasca, con la específica finalidad de "...estimular y fomentar el estudio de los problemas municipales de nuestro País; determinar cuáles requieren más urgente solución, así como hallársela, adecuada...".

No sé si, como afirmaba hace setenta y seis años el Comité Ejecutivo que diseñó y organizó la citada Asamblea, resulta necesario en la actualidad, "...crear ambiente municipal vasco". Lo que sí he podido comprobar es la gran similitud que existe —salvando, lógicamente, las inevitables diferencias que resultan del transcurso del tiempo— entre algunos de los problemas que en aquel evento se identificaron como los fundamentales del municipalismo vasco y los que en la actualidad aquejan al escalón municipal de la Comunidad Autónoma.

La conmemoración de aquella insigne Asamblea de Administración Municipal, puede constituir una buena ocasión para afrontar —con la prudencia necesaria, sí, pero al mismo tiempo con la imprescindible valentía— la problemática en la que el municipio vasco se encuentra inmerso en la actualidad.

*Josu Iñaki Erkoreka Gervasio*  
Director del Instituto Vasco de Administración Pública